


BER RIGARA

4. zenbakia JARDUN Elkarteak Bergara 1994, urriak 14

Ezkontzen inguruko gora-beherak



egizabal





**Euskadi berritzearekin
elkar zaitez.**



**EAJ
PNV**

Z E R B E R R I D A ?

REGINO VALLE


Bergarako Kultur Ekintzako partaidea

- Zein da Kultur Ekintzaren egungo egoera?

- Bueno, elkarte bezala dagoeneko desegin dela esango nuke baina honelakoetan gertatzen den bezala lanean jarraitzen dugu egin beharreko finiki-toak burutu arte. Kultur Ekintza desagertutzat eman daiteke.

- Hala ere, Ariz-Ondoren azken ale bat kaleratuko da...

- Batez ere gurekin kolaboratu duten guztiei eskerrak eman eta herriari informatzeko izango da. Ez dakigu oraindik noiz kaleratuko den, kolaboratzaileen menpe egongo da; baliteke hurrengo hila-



beterako kalean izatea.

- Kultur Ekintzak zer uzten digu?

- Azken 27-28 urtetan lan bikaina egin dugula esango nuke eta horren lekuko ditugu Kultur Ekintzatik sortu eta gaur egun herriaren bizitzan garrantzi handia daukaten talde kulturalak.

"Agur modura, Ariz-Ondoren azken ale bat aterako dugu laister"

I T U R R I O N E T I K

Kotxe banatzaile ofizialeko ordezkariak Bergaran

Datorren astean Frantziako hainbat kotxe banatzaile ofizialeko ordezkariak bisita bat egingo dute Bergarara. Badirudi, Diputazioaren laguntzaz, Gipuzkoako hainbat herritan bisitari izango direla eta tartean Bergaran izango ditugula ostegunean. Bergaran, besteak beste, pabiloi industrialak ezagutzeko interesa azaldu dute eta Lasa jatetxean bazkaldu ondoren, baliteke gure herriko Ondare Kulturala ezagutu ahal izateko bisitatxo bat antolatzea.

Bisita hau konfirmazioaren zai dago oraindik.

ESAN DUTE

"(Lehendakariari) Orainarteko jarrera poliziala alde batera utzi eta, nahiz eta inmigranteek botorik ez eman, beraien arazoei (permisoak, osasuna, heziketa) jarrera solidario, tolerante, abegikor eta antirrazistarekin aurre egin diezaietela eskatuko nioke"

AGUSTIN UNZURRUNZAGA
Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren presidentea
EL DIARIO VASCO

"(Lehendakariari) Orain arte eman den euskal nekazal politika aldatzea, baserritarrek betetzen duten paperaren errekonozimendua eta nekazaritza bizi baten alde saiakera guztiak egitea "

BALENTIN GABILONDO
EHNEko presidentea
EL DIARIO VASCO

"Bergarako Frontoia eta batez ere Anoetakoa dira pelotan jokatzeko dauden frontoirik onenak"

JULIAN RETEGI
Pelotaria
EL DIARIO VASCO

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.

Telefonoa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Argindun Elkarte

Masterreka, 13. 20.570 Bergara.

Tel: 76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa:

Alex Azkarate, Eduardo Mendibil eta

Mikel Elkoroberezibar.

Argazkaria:

Alex Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.

Tel: 76 03 97

Kolaboratzaileak:

Alex Angel Mikeo, Estepan Plazaola,

Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex

Abaien, Iñaki Eraña, Juan Martin

Itxepuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,

Alzola, Alzola, Ainhoa Lete, Jon Ander

Ugaitza, Mikel Lizarralde, Monika

Ugaitza, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa

Ugaitza.

Comikia eta marrazkiak:

Alex Rodriguez, Gorka Ortega, Jon

Ugaitza, Jose Martin Ezenarro

Ugaitza Julian Ezenarro.

Portadako argazkia:

Alex Ugaitza argazkidea.

Argazkaria:

Alex Ugaitza argazkidea.

Argazkia: 3.700 ale.

Argazkia:

Alex Ugaitza argazkidea. (Zubillaga. Onati).

Argazkia: BERRIGARA

Argazkia: SS 50/ 91

Argazkia: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen

Argazkia adierazitako esanen eta iritzien


Argazkia.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du




Aldizkari honek Euzko Jauriaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du

E D D I E M U R P H Y



SUPERDETECTIVE EN HOLLYWOOD III

Ostirala: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



EN EL NOMBRE DEL PADRE

Larunbata: 17.00, 19.30 eta 22.30.



EL BANQUETE DE BODAS

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ Eddie Murphy aktore komikoak, aurrekoa ikusita eta ohizkoa den bezala, formula errepikatzen du. Berriz ere akzioa eta umorea tartekatuz, bere luzimendurako filmea heltzen zaigu. Honetan esaten zaigun moduan, inoiz ez zaizko gauzak hain gaizki jarri baina aurrera egingo duela espero daiteke...
John Landis zuzendari eta **Hector Elizondo** eta **Theresa Randle** errepartoan.

▼▼ Guilfordeko lau irlandarrek eta Justizia britaniarrak urtetan atentatu baten inguruko auzia mantendu zuten. **Jim Sheridan** zuzendaria eta **Daniel Day Lewis** aktorea, berriz ere elkarlanean (*Mi pie izquierdo*), gertatutakoa argitzen saiatuko dira. **Emma Thompson** abokatuaren paperean.

▼▼ Aurreko urteko errebelazio nagusienetako bat zine-klubean. **Ang-Leek** zuzenduta, komedia honek *Urrezko Artza* irabazi zuen Berlingo Zine Jaialdian eta mundu osoan zehar kritikaren errekonozimendua ere jaso du. Ezkontza baten inguruan milaka enredu gertatuko dira, ikusleen gozamenerako.

Deiak

▼ **Yoshiyasu Zenitaniren** margoak Bilboko Berta Belaza galerian (Arrikibar Plaza, 5) urriaren 27ra arte.

▼ **Jon Balentziagaren** pintura eta eskultura erakusketa Donostiako Arrasate erakusketa aretoan (Arrasate, 12) urriaren 23ra arte.

▼ **Maite Juan Marquesen** pintura erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **1929an** jaiotakoen anaiarte-ko eguna urriaren 30ean. 12.30etan San Pedron meza eta ondoren bazkaria Lasa jatetxean. Izen-ematea: 76 16 60 (Ignacio Uribesalgo) eta 76 19 22 (Jose Luis Kapanaga).

▼ **Gerontolojiako laguntzaile** ikastaroa azarotik maiatzera bitarteko Arrasaten. Argibide gehiago 79 02 11/77 05 00 telefonoetan.

Ogia

▼ **Igandea 16:** Mizpildi.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 14:** Camacho.
- ▼ **Larunbata 15:** Puy.
- ▼ **Igandea 16:** Puy/Morales.
- ▼ **Astelehena 17:** Guallar/Azkoaga.
- ▼ **Asteartea 18:** Estella/Español.
- ▼ **Asteazkena 19:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Osteguna 20:** Camacho/Irizar.

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

ederTU
ALTZARIAK

ETXAGI

Jatetxea
Afariak-Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Euskal Herriko

SOINU TRESNAK

Urriaren 23ra arte Kultur Etxean ikusgai Lorentxo Altuberen eskutik

Lorentxo Altube arrasatearraren eskutik, Euskal Herriko soinu tresnen erakusketa izango da Kultur Etxean urriaren 23ra arte. Bertan, txalaparta, alboka, adarra, tobera, ttun-ttuna, xilofonoa, txirula eta xaramelak ikusi ahal izango dira. Lorentxo Altubek 8 bat urte daramatza honelako tresnak egiten; "nere seme batek txalaparta jo eta klaseak ematen zituen eta ni ere nere kontu hasi nintzen Arrasateko lokal batean, txalapartak egiten eta txalapartariei laguntzen". Lorentxok esaten digun bezala, "txalaparta autoktonoa da eta Aita Barandiaran, Aita Lekuona eta Aita Donostiak kanpaien aurretikoak direla aipatzen digute".

Gainontzeko tresnak azterterakoan, albokari buruz zera adierazi digu: "Badira Egiptotik datorrena eta bara joandako instrumentoa dela esaten dutenak. Afrikan ere badira antzerako instru-

mentoak baina ez dira berdinak eta albokari "clarinete vasco" esaten zaio; ttun-ttuna, berriz, Iparraldean eta Behe-Nafarroan txirulari laguntzeko erabiltzen da; adarra eta xilofonoa (zur-ereskina deitzen diot nik) unibertsalak dira eta, xaramelak, Txinatik datoz, antzerkia egiteko erabiltzen ziren eta "palillos" bezala ere ezagutzen dira".

Badira oraindik beste bi instrumento: "Tobera Oiartzunen erabiltzen zen eta oso zarata polita dauka, baina debekatu egin behar izan zuten kuadrilek ateratzen zuten zaratagatik; batez ere eztaietan erabiltzen zen eta Gabonetan edota Santa Ageda bezperan haurrak kantatzen laguntzeko oso egokia da. 1700 urte ingurukoa da. Azkenik, adarrari buruz gauza gutxi ezagutzen da, dei egiteko tresna zen (deiak biru zati ditu) eta txalapartarekin batera ere jotzen zen".



Lorentxo Altube txirula eta ttun-ttunarekin.

Erakusketak irauten duen bitartean Bergarako hainbat ikastetxetako ikasleek soinu tresna hauek ezagutzeko aukera izango dute Lorentxo Altubek berak emango dizkien azalpenei esker: "bai, zer pisu, zer tonu, bakoitza nola jotzen den... etab. azalduko zaie; solfeorako ere aproposa da, perkusioa (txalaparta), haizea (alboka)

edota soka (ttun-ttuna) biltzen baitira. Jotzen dakidan? Txalaparta zedozer, semeak erakutsita baina besteak ez. Gure denboran ez zen solfeorik...". Kutxa Fundazioaren laguntzaz, Lorentxok urte amaiera arte jarraituko du erakusketak egiten... eta ikertzen: "nere ilusioa tresna berriak topatu eta horiek erakustea litzateke".

Txalaparta, alboka, adarra, tobera, xilofonoa, ttun-ttuna, txirula eta xaramelak ezagutzeko aukera

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Presoen egoerari buruz

Sei herritar aurreko astean bost egune-ko baraua egiten egon ginen UNEDeko gela batean. Karta honen bidez zergatik egin dugun azalduko dugu; Euskal preso politikoek duela gutxi egin zuten bi asteko gose greba eta euren eskakizunak lortzeko gizaritari laguntza eskatu zioten. Hiru egoera ezberdini erantzuna ematea, eskatzen dute presoek.

- Batetik sendatu ezin den gaisotasuna duten zenbait presok kartzelan jarraitzen dute, ez delako legea betetzen. Gose greba eginez, legedia bete eta hamar preso horiek askatzeko eskatu dute euskal presoek.

- Bestetik, kondanaren hiru laurdenak beteta dituzten presoak, legediaren arabera, kalean izan beharko lukete. Guztira 70 preso horiek askatzeko ere eskatzen zen.

- Azkenik, hirugarren eskaera euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko izanda, sakabanaketarekin etxeokak eta lagunak ere zigortzen baitira.

Guk bat egin dugu eskaera hauekin.

UNEDean, bost egunetan, jende ugari hurbildu da gose greba egin dugunon egoeraz arduratzeko. Guztioi eskerrik asko eta baita UNEDI ere baraualdia egiteko gela uzteagatik.

Bestalde, eskutitz hau idaztera behartuak ikusi gara, Berrigarako irakurleak enteratu daitezten, euskal presoek gose greba egin dutela eta horren bidez zer lortu nahi duten.

- Bergarako 17 presoek astebeteko gose greba egin zuten duela gutxi, baina hori ez da notizia izan.

- Osa, Rossli, Peito, Maite eta Bittore kalean egon behar ziren legea betez gero, kondanaren hiru laurdena beteta dutelako,

baina kartzelan dauzkate. Hau ere ez da notizia izan. Presoak ere herriokak dira.

Tristia litzateke Berrigarak Madrileko komunikabide guztiek eta Euskal Herriko batzuek hartu duten bidea hartzea, presoekin lotutako informazioa isiltzea eta ez argitaratzea alegia.

Azkenik eta bukatzeko presoen eskaren aldeko ekitaldietan parte hartzea duen garrantzia aipatu nahi dugu. Presoek ez dute gauza haundirik eskatzen; Madrileko agintariak euren legeak bete ditzatela. Besterik ez. UNEDean baraualdia egin genuenak.

J. A. (NAN: 15.375.916)

BERRIGARAREN erantzuna

Goiko kartaren inguruan, BERRIGARAK zera argitu nahi du: presoek baraua zergatik egin zuten eta euren eskaerak zeintzuk ziren garbi azaldu genuela Senideak taldearekin irailaren 15eko BERRIGARAN (161. alea) egindako elkarrizketan. Horrez gain, hurrengo alean (162. alea), zuek egindako barauaren berri eman genuela. Uste dugu gure irakurleak, horren inguruko informazioa ondo jaso zutela.

Zuk zer diozu?

Elkarrik, gizarte mugimenduak, Euskal Herrian bake justu batera heltzeko bide berririk zabaldu asmoz, udazken honetan euskal gizartea eztabaida zabalera konbidatu nahi du. Horregatik joan zen irailaren 23 eta 24an, Bake Topaketa Partehartzaileak eta Euskal Herriako Bake Konferentzia Proiektua bultzatzeko helburuarekin, kanpaina

berri bati ekin zion.

Elkarri orain urte t'ardi jaio zen eta ordu ezkerero, gizarte mugimendu honek indarkeria egoeraren ordez distentsioa eta elkarrizketaren aldeko hainbat ekimen garatu arren, oraindik ez dirudi batzuen begikoa denik.

Batzuetan egia erdiak, besteetan gezur borobilak, mesfidantza sarri, beste bake taldeei ematen zaien antzeko laguntza ekonomikoaren eskaerari argumentazio gabeko Jaurlaritzaren ezetza birritan, eta kritika gaiztoak zein eskertzen direnekoak ere bai, jasan ditu Elkarrik denbora honetan. Hala eta guztiz ere, ez deritzogu hain onargarri Bergaran gertatutakoari.

Aipatutako kanpainari hasiera emateko kartel batzuk jarri ziren asteburuan zehar. Baina kartel horiek zenbat irauten duten jakinda eta, baita ere, herriko txukuntasunean laguntzearen, Beheko Plazan oholleko lauoineko panel bat jarri genuen iluntzean kentzeko asmoarekin. Zein ez ote zen gure harridura hura gordetzera joan ginenean, lurrean zizko eginda aurkitu genuenean? Gogotik egin behar izan zuten lana oholak apurtzen jardun zutenek. Ez zen izan, ez, nahi barik egindako gauza. Zapatuan, kale erdian eta egun-argiz egindako balentria izan zen; baina zoritxarrez, edozetara ohitu ei gara.

Ume mukizuen kontua izan zela sinistu nahi dugu. Hala ere, kasu txarrean jarrita, arrazoi ideolojikoagatik izan bazen, "Zuk zer diozu?" zioen panela txikitu zutenek zer defenditzen dute? Dialogoa? Tolerantzia? Ordena? Aberria? La Patria ala ze arraio? Behar bada adierazpen askatasuna... Benetan, distentsioaren mesedean, hobe pentsatzea ganberrada bat izan zela eta kitto.

BERGARAKO ELKARRI

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

◆ **Hildako untxiak Albitxu inguruan**

Aurreko ostegunean Albitxuko depositoarengatik hilda agertu ziren untxi mordoxka bat (25 bat) eta depositoko ura aztertu ondoren, astelehenean zabaldu zen berriz ere depositoa. Analisiek ez zuten ezer arriskutsurik aurkitu baina depositoa hustu, beharrezko probak egin eta garbitu egin behar izan da. Udalak denuntzia bat aurkeztu du Epaitegian.

◆ **Igerilekuak zabalik**

Lau egunez itxita izan ondoren, asteazkenean barruko igerilekuak zabaldu ziren. Pol-Pol inguruan pinu batzuk mugitzerakoan bertako ura lokaztu eta pizina itxi egin behar izan ziren. Udalak pinuekin lanean ari zenari espedientea ireki dio.

◆ **Olaso Dorreko kalteak**

Bergarako Udalak eta Olaso Fundazioak 7 milioi pta.tan finkatu dituzte Udaletxeko obrak direla eta Olaso Dorrean iaz eragindako kalteak. Kostuak Udalak kontratatuta zuen aseguru etxeak ordainduko ditu.

Aurtengo Udazken Kulturala, 1794 urtea gogoratzuz

Aurten hitzaldiak, antzerkia eta kontzertuak tartekatuko dira

Asteartean aurkeztu zen Udazken Kulturalaren edizio berri bat. Aurten 200 urte betetzen dira Frantziako Konbentzioko gudarostea Bergaran sartu zenetik eta beraz, ohizko kontzertuez gain, Ilustrazio garaia Euskal Herrian gogoratu eta Bergarako Seminarioko sasirik emankorrenetariko baten ezagutzan sakontzeko ekitaldi izango dira.

Programa honako izango da: urriaren 28an Josetxo Urrutikoetxearen *"Konbentzio garaiko eronka: kanpoko erasoala barruko gaitza"* hitzaldia 7etan Kultur Etxean, 29an Danimarkako Kammerkoret Camerata abesbatzaren kontzertua 8.15etan Santa Marinaran, azaroaren 4an *"Los hermanos Elbuyar en Bergara"* hitzaldia Jesus Palaciosen eskutik 7etan Kultur Etxean; azaroaren 11n Joseba Goñiren *"Resistencia de la Gipuzkoa interior en la Guerra de la Convención"* hitzaldia; azaroaren 20an Bandaren kontzertua; 25ean Capilla Peñafloredaren kontzertua, abenduaren 2an Musika Eskolako taldeen kontzertua eta abenduaren 16an Ramon Gago eta Ines Pellonen *"Historia*




Koldo Pereira, Luis Abajo eta Xabier Aranburu prentsaurrean.

de las Cátedras de Química y Mineralogía de Bergara a finales del siglo XVIII" liburuaren aurkezpen eta lehen aldiz Bergarako Pleno arteoan antzestu zen *"El borracho burlado"*ren emanaldia, 23an Gabonetako kontzertua San Pedron Udal Banda, Aritzeta, Or-

kesta eta Orfeoiairen partaidetzarekin eta, azkenik, abenduaren 28an play back jaialdia Mariaren Lagundian.

Udazken Kulturalak 2 milioi pta.ko aurrekontua du. Liburuari dagokionez 1000-1500 ale kaleratuko dira eta 1.000 pta.tan jarriko da salgai.

Bizimodu eta Drogomenpekotasunei Buruzko Topaketak izango dira datorren astean Bergaran. Astelehenean Manu Gonzálezek *"Bizimoduak eta drogomenpekotasunak. Garapena eta gaur egungo egoera"* hitzaldia emango du 7etan Kultur Etxean, asteartean toki eta ordu berean *"Zeintzuk dira, gaur egun, transmititzen ditugun ereduak?"* hitzaldia, asteazkenean 7.30etan *"La crisis"* filmea Novedadesen eta ostegunean *"Giza Taldeen partaidetza prebentzioan"* hitzaldia 7etan Kultur Etxean.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

◆ Perretxiko erakusketa eta Gernikako Feria

Begarako Jubilatuek Perretxiko erakusketa iragarri dute urriaren 20rako. Beharrezko sailkapena egin ahal izateko, parte hartu nahi duten bazkide guztiei urriaren 17, 18 eta 19an perretxikoak eramateko dei egiten zaie. Bestalde, urriaren 31n Gernikako Feriara joateko egun osoko irteera antolatu da. Prezioa: 3.000 pta. (plaza mugatuak).

◆ Dantza, eskulanak eta bertsoak

JARDUN Elkarreak antolatutako dantza (urriaren 22tik abenduaren 3ra) eta bertso ikastaroetarako (urriaren 21etik abenduaren 23ra) izena emateko epea urriaren 19an bukatuko da. Emakumeentzako eskulan ikastaroa ere izango da azaroaren 3tik otsail bukaerara arte. Argibideak 76 08 19 telefonoan.

◆ Odol ateraldia

Begarako Odol Emaleen Elkarreak dei egiten du datorren asteazkenean, 7etatik 9etara Seminarioan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

◆ Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskeiniko du igandean 12.30etan Novedadesen. Alfredo Gonzálezen zuzendaritzapean, Bandak pieza hauek joko ditu: *Alternances* (Waignein), *Andante cantabile* (Tchaikowsky), *Gigantes y cabezudos* (selekzioa, Caballero), *It's the gossell* (Lowden) eta *The typewriter* (Anderson).



Eusko Jaurlaritzaren aginduz, beharrezkoa da Frontoian hobekuntzak egitea.

Eskutaldea izango da Frontoiko errentari berria

Plenoan kontrato berria eta berrizte obrak aztertuko dira

Astelehena 7.30etan Kultur Etxean egingo den Plenoan, Udal Pelotalekuan egin beharreko hobekuntzak eta jestore berriekin sinatuko den kontratoa aztertuko dira. Gogoratu Eusko Jaurlaritzako Joku eta Ikuskizun Departamentuak hainbat hobekuntza obra egitea agindu zuela, Frontoiak ez baitu hainbat ziurtasun neurri betetzen gaur egun.

Udalak eta Iñigo Idarretak (Tiburcio Gabilondoren oinordekoen izenean) hitzegin ondoren, 1966an sinatutako kontratua aldatzea erabaki zuten; bertan elkarte bat egiteko aukera jasotzen zen eta Iñigo Idarretak elkarte hori sortzeko eskakizuna aurkeztu zuen uztailaren 27an. Beraz, Udalak Fer-

nando Dublang eta Fernando Ugarteren Eskutaldea Elkarte Muga-tuarekin sinatuko du astelehenean aztertuko den kontratu berri hori. Horren arabera, Eskutaldea izango da Frontoiko jestore berria 2016 urtera arte. Lehen bost urteetan 200.000 pta. ko errenta ordainduko dio Udalari eta 6. urtean aurreko urtetako IPC gaurkotuta kobratuko zaie, hortik aurrera 200.000 gehi urteko IPCa kobratuz.

Egin beharreko hobekuntzei dagokienez, Anselmo Iñurrategik landutako proiektorearen arabera obrek 50 milioi pta. inguruko aurrekontua izango dute. Plenoan onartzekotan, oferta publikoa egin eta abenduan 3-5 hilabete iraungo duten lanei ekingo zaie.

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
 ANTZUOLA

HBren Batasun Eguna igandean Arrasaten

Bergarako Herri Batasunak dei egiten du igandean Arrasaten ospatuko den Batasun Egunean parte hartzeko. Eguerdiko 12 t'erdietan luntxa izango da Arrano Elkartean eta 4retan gazte tertulia Biona tabernan. Arratsaldeko 5 t'erdietan haurrentzako jolasak iragarri dira Seberon eta 7etan, Herriko Plazan, gaztainak eta buzkantzak banatuko dira bildutakoen artean. Arratsaldeko 8etan ekitaldi politikoa hasiera emango zaio eta

hizlariak Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea eta Herri Batasunako Gipuzkoako zerrendaburua eta Iñaki Antiguada izango dira. Igandean Arrasatera joan ahal izateko kotxe karabana antolatu du Herri Batasunak. Kotxe karabana arratsaldeko 5.30etan aterako da Beheko Estazioetik. Bestalde, ostiralean, urriak 21, Pol-Polen Gozategi anaiak trikitilariekin erromeria iragarri da gaueko 11etan.

EAJren hautagaiak Bergaran izango dira astelehenean

Astelehenean EAJren kanpaina autobusak parada egingo du Bergaran. Bertan, besteak beste, Itziar Alba, Esther Larrañaga, Joseba Leizaola eta Joseba Arregi hautagaiak etorriko dira arratsaldeko 4.30ak aldera. Beraiekin Victoria-no Gallastegi Bergarako alkatea, hainbat zinegotzi eta bailarako EAJko beste zenbait ordezkari egongo dira. Bergarako kaleetatik buelta bat emango dute herritarrei

publizitatea banatuz eta arratsaldeko 8etan Joseba Egibarrek eta Joseba Arregik Tolosan emango duten mitinean izango dira.

Erasoa

Bestalde, asteazken gauean Bergarako Batzokiak eraso bat jasan zuen. Itxura denez, enkaputxatuta zeuden bizpahiru gaztek bi ke pote jaurti zituzten Batzokira gaueko 9.15ak aldera.

PSE-EEK autobusa antolatu du larunbatean Felipe González eta Ramon Jauregik Bilbon emango duten mitinera joateko. Autobusa arratsaldeko 8etan aterako da Beheko Estazioetik. Ordua zehazteko: ☎ 76 55 23.

Iñaxio Oliverik (EA) gobernu abertzalea aldarrikatu zuen

Iñaxio Oliveri Gipuzkoako zerrendetan Eusko Alkartasuneko 2. hautagaiak mitin bat eskeini zuen aurreko astelehenean Bergarako Alkartetxean. Bere alderdikideen aurrean, Oliverik hauteskundeeetan jendearen parte hartzea ("eraikuntza nazionala egiteko ezin da denbora gehiago galdu; denok ez daukagu gaurko egoeraren erru berdina eta desilusionatuta dagoen jendea

egoera aldatzeko eskatuko nioke"), prozesu demokratikoa garbia izatea ("herritarrak benetan informatuta egotea aukerarik egokiena aukeratu ahal izateko. Horretarako binakako debateak behar beharrezkoak dira") eta gobernu abertzalea ("Ikuspegi abertzalea batetik ez bada gobernatzen, jai. Euskaldun sentitzen direnen multzoa haunditu behar da") aldarrikatu zituen.

Iñaxio Oliverik astelehenean Alkartetxean emandako prentsaurrean.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Elosuko Ganadu feriak, inguruko tratante eta herritarrak bildu zituen

Eguraldia lagun, jendetza izugarria bildu zen

Elosuko ganadu feriak urtero bezala jende multzo izugarria bildu zuen. Asteazkenean goizeko 11etarako antolatzaileek jarritako 2.500 kotxerentzako aparkalekuak beteta baitzeuden.

Goizean goiz, eguraldia lagun, Elosura inguruko herrietatik oinez, bizikletaz edo kotxez joandako lagun ez ziren. Kinkilero, talogile, gaztagile eta nekazal tresneriaren saltzaileek abelburuen protagonismoa itzali zuten. Halere Elosun izandako 200 abelburuen kalitatea aipatzekoa izan zen, Jabier Balentziaga albaiteruak adierazi zuenez. Feria goizeko 9etan zabaldu zen eta eguerdiko ordubaterako, abereak jendetzaren artean ia ikusi ere ez ziren egiten. Frontoi inguruan jendea Laja eta Landakandarekin dantzaz zebilen bitartean, beste batzuk salerosketan murgildurik zebiltzan. Dantzaldiaren ondoren, Lizaso eta Gorrotxategi bertsolariak gai librean bertsozaleen nahiak asetu zituzten. Aurtengo feria Elosuko Jai Batzordeak



Ganadu buru ederrak ikusteko aukera izan zen Elosun.

antolatu du eta oraindik baditu konpon ezinak Bergarako Udalarekin. *"Aurrekontua 800 mila pzt.a.koa izanda eta guk ordaindu behar izan dugu guztia. Datorren urterako alderdi politiko guztiekin hitz egiteko asmoa dugu gauzak konpontzeko"* adierazi digute Jai Batzordetik.

Bazkal ostean, Elosura joandakoek Goenatxo II eta Korta harrijasotzaileen trebetasuna frogatzeko aukera izan zuten.

Elosuarrak nagusi sari banaketan

Sari banaketei dagokienez, esan behar da elosuarrak sari gehienak eskuratu zituztela. Talderik onenaren sailean Txomin Oruesagasti elosuarrak irabazi zuen, Limousin behi talde batekin. Blonda behietan Pako Badiola elosuarrak irabazi zuen, Pirenaiketan Bergarako Irumendi elkartearen garaile, Txarolesetan Jose Mari Beristain elosu-

arra, Asturiana sailean Mateo Gabilondo elosuarra eta azkenik Limousin behietan Txomin Oruesagasti irabazi zuen. Behorrik onenaren saria Iñaxio Astigarraga azkoitiarrarena izan zen, ardie-tan Resurreccion Balerdik jaso zuen saria, idietan Juan Iraola bidaniarrak, idiskorik onena Antonio Olaizola azpeitiarrarena izan zen eta azkenik, as-toetan Bixente Elduairen elosuarrak jaso zuen saria.

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

DANTZA IKASTAROA

TANGO, ROCK & ROLLA, RUNBA

(Hasiera maila. Gutxienez 10 bikote)

NOIZ:

Urriaren 22tik, abenduaren 3ra arte.

ORDUA:

Larunbatetan, goizeko 10etatik 12.30etara.

IZEN-EMATEA:

Urriaren 19a baino lehen JARDUNen (☎ 76 08 19)

PREZIOA:

- **Bazkide direnentzat: 4.000 pzta.**

- **Ez direnentzat: 4.500 pzta.**



Adi egon!!

Dagoeneko BERRIGARA Gida 95 argitaratzeko lanean ari gara. Bergara, Antzuola eta Elgetako merkataletxe, lantegi, profesional ezberdin, kirol edota kultur elkarte, zerbitzu publiko eta abarren telefonoak bilduko dituen Gida Komertziala izango da, 5.000 etxetan banatuko dena.

Aurreko urteetan argitaratutako gidan zure izena, helbidea eta telefonoa azaldu bada edo ez bada eta aurtengoan agertu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, 76 08 19 telefonora deituz (arratsaldean). Dena dela, ez larritu, zurekin kontaktoan jarriko gara eta. Hala eta guztiz ere, **ADI EGON!!**. Zure intereserako da.

BERRIGARA

Gida

95

Osasuna

Ahoko infekzioak

- Zeintzuk dira ahoan izan ditzakegun infekziorik ohizkoenak?

- Maizen gertatzen direnak gingibitisa eta kariesa dira.

- Nola sortzen da kariesa?

- Hiru arrazoi nagusi daude: batetik plaka bakteriana sortzen duten bakteriak, bestetik dietan sartzen diren azukre refinatuak eta karbono hidratoak eta, azkenik, haginaren estruktura (esmaltea nolakoa den adibidez).


- Zer egin dezakegu horren kontra?

- Europan egin diren prebentzio kanpainen emaitza onak eman dituzte eta Suedian, esate baterako, odontolojia ikasten ari direnek zailtasunak dituzte kariesa duten haurrak topatzeko. Hemen, berriz, emaitzak ez dira hain onak izan nahiz eta prebentzio kanpaina antzerakoa izan.

Lehen aipatutako lehen faktorearen kontra, bakteriana alegia, garbiketa pertsonala da egokiena, 3 bider egunean eta zepilloa eta aginetarako erabiltzen diren hariak

erabiliz. Eta beti ere prebentzioa eskola mailan hasi behar da eta dentistarena urtean behin edo bi bider joanaz.


Bestalde, azukre eta karbono hidratoen dieten aurka joatea oso zaila da baina dietak zertxobait gehiago zaindu eta horrelako janak gutxiagotan jatea da hobe. Eta hiruga-



J. ALBERTO GOROSABEL
(dentista)

ren faktoreari buruz zera esan daiteke: egingdako estudioen arabera esmaltea fluorurarekin gogortu egiten da eta bakterien kontra erresistentzia hartzen du. Fluorra

"Prebentzioa eskola mailan egin behar da eta dentistarengana urtean behin edo birritan joatea komeni da"



Oraindik ere, kariesa da aginetako gaitzik arruntena gure artean.

urarekin batera edota kolutorio (enjuageak egiteko) eta gelen bidez eman daiteke: kolutoriak dentistak emanda (astean behin hartuz) eta gelak 6 hilabetetik behin.

Prebentzio mailan dena da garrantzitsua baina kariesaren eragina % 50ean urarekin bakarrik jeitsi daiteke, kolutorioekin % 20-30a eta gelekina % 40a inguru.

- Gingibitisari buruz zer esan daiteke?

- Gingibitisa, berriz, oien (enziak) inflamazioa litzateke eta igartzen da odola botatzen hasten dutenean eta haundituta ikusten direlako. Hortik aurrera pasatzen bada hezurra ere minduta gertatzen da, hezurra bere tokitik jausten da eta haginak ez dauka sustentorik, mugitzen hasten da ("piorrea" bezala ezagutzen da baita). Orduan atera egin behar dira eta horraino heldu baino lehen prebentzioa hasi behar da, hortzak behar diren bezala garbitzen.

- Zein adinarekin ematen dira gehien kariesa eta gingivitisa?

- 5-6 urtekoen artean kariesa sartzen da bai esnezko eta bai betiko haginetan. Gingibitisa, berriz, 18 urtetik gora ematen da batipat, nahiz eta "gazte gingibitisa" ere eman zenbaitetan.

Goierrri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

LARRAÑAGA eta ZUBIA Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...


Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Urriak 23an

Esan

BAI EUSKAL HERRIARI

abertzale eta ezkertzale



Bozkatu

HERRI BATASUNA

EMA



Herritarren
Aide

Urteak eta urteak dantzari emanak**Jabier Mendizabal eta Maite Barrena***Omenduak izan ziren joan zen larunbatean*

Xamatzekoek arkuak egin zieten Jabier eta Maite Elosuko elizatik irtetzerakoan.

Jabier Mendizabal "Surra" eta Maite Barrena senar-emazteek beren zilarrezko eztaiak ospatu zituzten larunbatean. Bertan ezin ziren dantzariak falta, izan ere 23 bat urte eman bait dituzte zenbait bergarar belaunaldiri dantza erakusten. Lan hori eskertzeko, larunbatean Xamatz dantzataldea, Aritzeta abesbatza eta beraiekin ibilitako beste hainbat dantzari beraiekin izan ziren.

Jabier eta Maite 1962 urtean hasi ziren elkarrekin inguruko dantza lehiaketetan parte hartzen. Maitek gogoratzten duen moduan, "Bergarako Gazte-Alai aurriskularien taldean hasi ginen, Ramon eta Joaquin Etxaniz anaiekin ikasten. Nik 16 urte eta

Jabierrek 20 edukiko zituena orduan. Irabazi genuen txapelketarik garrantzitsuena Gipuzkoako izan zen, 1966an. Orduan ez zen Euskadiko Txapelketarik izaten. 1989an txapeldun izandako guztioi omenaldia eskeini ziguten". Hurrengo urtean Jabier lesionatu

egin zen eta ezin izan zioten txapelari eutsi.

Txapelketetan parte hartzeaz gain, 1964an dantza erakusteari ekin zioten Maite eta Jabierrek: "orain Pertxa elkarte dagoen lekuan sagardotegi bat zegoen lehen eta lokal bura utzi ziguten. Angel Azkara-

tek bere tailerreko argia eman zigun eta andrea eta bion artean dantza suelta erakusten hasi ginen, zenbait bikote lehiaketetarako gertatuz: Jose Jabier eta Belen Azkarate anai-arrebak, Jose Miguel Mujika eta Arantzazu Mendizabal, Jesus Mozos eta Maria Jesus Mendizabal... Sagardotegia bota zutenean Inazio Satorretxe, Inaki Marzan, Jose Nikolas Gallastegi eta Juan Mari Aranzabal laguntza emateko agertu ziren eta klaseak Zabalotegin, Martokuan, Zubietan eta Maduran ematen genituen guztion artean" aipatzen digute.

Garai hartatik badu Jabierrek oroitzapen berezi bat; "Ospitalean gutxituen eskola zegoen eta beraiei dantza erakusteko eskatu ziguten Pedro Jose Lete Antzuolako txistulariari eta niri. Gabonetako jaialdi batean baietako bik aurriskua dantzatzea lortu genuen. Talde bat egiteko aukera ere aztertu zen baina nik eduki nuen lesio bategatik ez zen egin azkenean".

Handik gutxira Moises Aspiazu zena Aranzadi

MUJIKA**Burdinaki denda**

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

**Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK****LOS CAZADORES****Kafea da gure berezitasuna****Zubieta, 26 BERGARA**

Ikastolako taldea eta bikoteak gertatzen hasi zen eta laguntza eskatu zion Jabierri; "bai, Moises sueltoko dantzaria zen eta batez ere taldeei laguntzeko eskatu zigun. Sueltoan, besteak beste, Xabier Mujika eta Aintzane Arana, Edu Murua eta Jaione Arana, Joseba Aseginolaza eta Mirentxu Berasategi, Pardina eta Madinabeitia anai-arrebak, Xabier Errasti eta Agurne Arizmendi... aritzen ziren. Moisesek utzi zuenean guk hartu genuen euren ardura eta egia esan, ezin zitzaie gehiegi erakutsi, ordurako gu baino gehiago ziren eta" azaltzen du Jabierrek umorez. Moisesekin lotutako anekdota bat ere badauka; "txapelketetan bikote irabazleak txanpana ordaintzeko obitura zegoen. Behin, Bergaran, bi bikote bakarrik aurkeztu ginen, Moises eta Mari Kontxi Garaiondo alde batetik eta gu bestetik. Bi aldiz buts egin arren, leben saria eman zieten beraiei, nabiz eta gu baino hobeak izan. Baina, 3. entzat zegoen saria ere beraiei eman zieten; orduan Infernukora joan ginen eta Moisesek txanpana ordaindu eta zera esan zigun: bale, leben saria jaso dugu eta horrek ez dauka bueltarik baina 3. saria bion artean banatuko dugu. Oso lagun onak ginen".

Bion kritikarik zorrotzena epaileei zuzendutakoa da. Maiteren hitzetan, "epaileek min handia egin diote dantza sueltuari. Gu hasi ginean Plazan egiten zen dantzekin hasi ginen eta konsolazio saria besterik ez genuen jasotzen: 100 pezeta, pentsaizu. Inoiz ez da egon juradu dexteriorik: alkateak, medikuak eta jende horrek osatzen zuten, dantza ezagutzen ez zuen jendea gehienetan eta herriko benetako dantza laga egin behar izaten zen saritan sartu abal izateko. Eta pena da dantza horiek galtzea. Behin Berrizen dantza zabarren lebiaketa antolatu zen eta Moisesek utzitako bikoteekin eta Jabierren gurasoen laguntzaz zenbait dantza berreskuratzen abalegindu ginen. Baina beste bikoteak ke-jatu egin ziren, ez zituztela dantza horiek ezagutzen eta ez genuen azkenean parte hartu. Erropekin beste horrenbeste gertatzen zen: dotoreen janzten zinenean ezer ere ez; ez genuenean merezi, orduan saria jaso! Dena aldrebes".

Taldearekin orain 8 urtera arte jarraitu zuten biek; "egunero ordu t'erdiz entsaiatzen genuen eta azkenean lanagatik eta utzi egin behar izan genuen. 10-12 bat laguntzaile geneuzkan eta beraiek hartu zuten ar-

dura. Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatutako ikastaroei esker monitoreak sortzen joan dira eta aipagarria da Xamatz eta Dani Aspiazu egiten ari diren lana. Baina ez da leben bezala, gazteek ez daukatelako bainbeste denbora dantzari eskeintzeko eta dantzan ondo egiteko egunero egin behar da. Leben ikasturte batean 180 ume edukitzera iristen ginen, garairik onena orain 12-14 urte emango zen eta Eskoriatatik Elgoibar arteko taldeak elkartzen ginen, monitoreak ekarri eta dantzak elkarri erakusteko; orain zailagoa da

bori ematea baina dantzari onenak gure herri-an dira: Edu Murua eta Amaia Agirrek mailarik haundiena markatu dute eta badatoz gazte onak ere".

Maite eta Jabierrek badute oroitzapen berezi bat: "Toribio Jauregi argazkilaria zen gure jarraitzailerik onena; konkursu denetan ateratzen zizkigun argazkiak; urte guztian bere dendako eskaparatean egoten ginen!".

Oraindik ere, dantza-oren onerako, badute loturarik dantzarekin eta noizean behin epaile lanak betetzen jarraitzen dute Maitek eta Jabierrek.



Maite eta Jabier orain dela 30 bat urte Bergarako konkurtsoan.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

KONTSULTA BERRIA

Cristina Garciandia Mugica

DERMATOLOGIA, BENEREOLOGIA, MEDIKU KIRURJIKOA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon maria Lili, 2. Ate nagusia. ☎ 76 59 39

Lagun Aro Aseguruak Osasun Laguntza



Gaur egun ezkontzen diren bikote bergarar gehienak elizatik ezkontzen dira.

Ezkontza: Negozioa, konpromisua, ospakizuna, maitasuna, itxurakeria...?

Ezkontzeko orduan bi pertsonaren artean dagoen amodioaz gain bere inguruan hainbat gauza daude.

Alde batetik elizatik ezkontzen direnak papel batzuk bete beharko dituzte eta, aldiz, epaitegitik ezkontzen direnak beste batzuk. Horrezaz gain, ezkonkideek, egun horretarako jantzi bereziak, lorak, erregaliak, ile-apaindegia, argazkilaria, bazkaria, eztai bidaia, musikariak eta beste hain-

**Ezkontzea erabakitzen duen bikoteak gauza asko eduki behar ditu kontutan erabaki hori hartu baino lehen. Lehen pausua elkarrekin bizitzearena, garrantzitsua bada, beste gauza batzuk, bodaren antolaketa-
ren ingurukoak batez ere, garrantzia handia hartu dute azken urteetan. Horren ingurukoak eta ezkontza batek dituen beste aspektu batzuk aztertu ditugu hurrengo erreportaian.**

bat gauza lotu beharko dituzte. Horrek, antolaketa mailako buru-haus-

teez gain, diru aldetik ere izugarriko gastua dakar. Hainbat tokitara jo dugu

gaur egun boda batek zenbat balio duen, gutxi gora behera jakiteko.

Lehen atea edertze areto batekoa izan da. Han esan digutenez ezkontza aurretik ezkongaiak solariumera joatea nahiko normala da. Horrezaz gain azaleko garbiketak eta egunerako makilaia ere egiten dute. Orain arte emakumezkoak ziren edertze aretoetara joaten zirenak, baina azkenaldian gizonezkoak ere hasi dira joaten. Diruari dagokionez makilaia eta solarium saio batek 11 mila pza inguru balio du. Edertze aretoa utzi ondoren argazki dendetara joan gara eta han esan digutenez boda gehiengotan 36 argazki ateratzeagatik 86 mila pza inguru kobratzen dute. Halere segun eta ze albumetan montatzen diren argazkiak prezioa igo egin daiteke. Hori bai album guztiak desberdinak izaten dira.

Ezkontza orduan beste elementu garrantzitsu bat ezkonkideen jantziak dira. Emaztegaiaren trajea erosteko normalean kanpora joan behar da eta Donostiako denda espezializatu batean galdetu dugu gaur egun ze traje mota dauden modan. Esan digutenez zuria oraindik ere modan dago, baina beste kolore batzuk, "pastel tonok" dirrelakoak gero eta gehiago erabiltzen dira. Diru kontuetan sartu ezker, traje merkeenak 80 mila pza inguru balio du eta garestienak miloi bat pza balio dezake. Baina normalean emakumeek 80 mila pztatik 250 mila pza.rainoko gastua egiten dute. Gizonezkoek ere asko aurreratu dute euren jazeran eta asko

dira neurrira egiten dituzten trajeak. Diru kontuetan sartu ezkerro, traje normal batek 60 mila pzt. balio dezake.

Jatetxeen dantza

Boda batean ere normala izaten da ezkontza bazkaria. Denetariko menuak eta prezioak daude. Baina normalenak 6 mila pzt. tik 8 mila pztaraino doazenak dira. Hain zuzen 6 mila pztaren truke 8 entremes ezberdin jan daitezke, lehen plateran bezala kontsomea edo krema aukeran, eta bigarren platera legatza edo solomilloa izan daiteke. Postrea tarta, izozkia eta txokolatreak osatuko lukete. Guzti hori ardo, kopa eta kafeaz lagunduta. 8 mila pztara igotzen badugu, menua antzerakoa da, baina prezioa igotzen duena mariskoa da.

Ondo jan eta gero boda batean dantzaldia izaten da. Gitarra, bateria eta kantari batez osatutako talde normal batek 60 mila pzt. kobratzen ditu. Halere gastu hauei aurre egiteko boda batera gonbidatu bezala joaten direnak, gaur egun, batz bestea, ordaintzen diren 12 mila pztak ordainduz gero boda errentagarri atera daiteke.

Thailandia eta Mexiko modan

Ezkontza bat ez da, gehienetan, egun bakarrean amaitzen. Elizatik edo epaitegitik pasa eta banketea egin ondoren, senar-emazte berriek bidaia egin ohi dute. Bidai agentzietan azaldu digutenez, bidai asko daude aukeran. Halere, lehen Karibea modan bazegoen, azken aldian Thailan-

Thailandia eta Mexiko modan badaude ere, gaur egun oraindik ere bikote asko joaten dira Kanarietara ezkontza bidaian

Ezkontza baten kostua eta datuak

- Emaztegaiaren trajea: 80 mila pzt. tik 250 mila pzt. ra
- Senargaiaren trajea: 60 mila pzt. tik 150 mila pzt. ra
- Eratzunak: 5.500 pzt. tik 9.000 pzt. ra
- Lorak: 40 mila pzt.
- Argazkiak: 85 mila pzt. tik 90 mila pzt. ra
- Musikariak: 60 mila pzt. tik 65 mila pzt. ra
- Ezkontza bidaia: 100 mila pzt. tik 500 mila pzt. ra
- Bazkaria: 6 mila pzt. tik 8 mila pzt. ra
- Bidaia: 100 mila pzt. tik 400 mila pzt. ra
- Konbidatuek jarritako dirua: 12 mila pzt.

laz epaitegitik 24 bikote ezkondu ziren eta elizaz 34. Aurten 19 bikote elizaz eta 8 epaitegitik. Udaberri eta udan ezkontzen dira bikote gehienak. Datuak epaitegian lortutakoak dira. Kontutan izan behar da bikote asko Bergaratik kanpo ezkontzen direla eta horiek beste herri batzuetan daude izena emančia.

dia eta Mexiko aldera doa jende gehien. Baina bidaia egiterakoan diruak asko mugatzen du. Izan ere Thailandiara joateko pertsona bakoitzeko 200 mila pztatik 300 mila pzt. rainoko prezioak daude aukeran. Mexikora, aldiz, Cancun eta Maïen kultura ikusteko zirkuito bat eginez 100 eta

piku mila balio du. Baina Mexiko osorik ezagutu nahi bada 400 mila pzt. ordaindu beharko dira. Edozein modutan aspalditik ezkon berrien destinarik ohizkoena Kanariar irlak izan dira eta gaur egun ere bidai agentzian esan digutenez, bikote asko joaten dira "zorioneko irletara". ▶▶



DENDA BERRIA ZABALDU DUGU!!

BARRENKALE, 19

Gazteentzat moda bakeroa!!

Bonaventure, Diesel, Pepe, Levi's..., markak ditugu

Fidel Izagirre

► **ELEIZAREN IKUSPEGIA**

"Bikote asko arin antzera etortzen dira ezkontzera"

Fidel Izagirre San Pedroko parrokoarekin ezkontzaren inguruan elizak duen jarrerari buruz hitz egin dugu.

Elizatik ezkontzeko, ze pausu eman behar dira?

- Elizak hiru baldintza jartzen ditu. Lehena ezkonkideei aske eta presio gabe datozela sinarazten zaie. Bigarrena da, elkarrekin eta betirako bizitzeko prest daudela eta azkenik, haurrak izaten badiutuzte kristautasunean hezitzeko hitza ematea. Hiru baldintza hauek firmatu egin behar dira. Halere ezkontza baino lehen ezkonkideekin hitz egiten dugu, ezkontza gertatzeko.

- Boden inguruan eratu den negozioa nola ikusten duzu?

- Alde batetik, elizak ez

du ezer kobratzen. Bestalde boden inguruan dauden ekintzekin, bi gauza daude. Pentsatzen dut ospatzea egokia dela. Baina horrela egin behar dela festa?, nik uste dut ezetz. Baina hori nork frenatu. Lagun bat ezagutzen dut, bere ezkontzaren antolaketa agentzia bati enkargatu diona. Jantziak, bazkaria etb... agentziaren kontu da. Uste dut negozioa atzeraka joan beharrean aurrera doala.

- Noizbait ukatu al diozu norbaiti ezkontzea?

- Bi kasu izan ditut. Bata Santanderreko gizon bat ezkondu nahi zuena eta bere paperak ikusi ostean ezkonkuda zegoela ikusi nuen ezkontza ukatu egin nion. Bestea, Eibarren nengoela, bertako kazetari baten egin zuen artikulu bat bera sinisgabea zela aitortuaz. Handik bi hilabetera

edo etorri zen ezkondu behar zuela eta esan zidan familiagatik ezkontzen zela. Berarekin berba egin ondoren, berari pentsatu arazi ondoren elizatik ez ezkontzea erabaki zuen. Nik uste dut hor azpian dagoela eskubide bat pertsonarena, bai emakume eta gizonezkoena, biak bat eginez eta maitasunez bizi, hor aberastasun bat sortzen da. Elizak hori sakramentu bi-

hurtzen du. Eskubide horri ezetza esateko arrazoi zehatzak izan behar dira.

- Ez duzu uste jende asko sinisimen handirik gabe ezkontzen dela?

- Horri erantzuten ez naiz atrebitzen. Halere, jende asko arin antzera etortzen da ezkontzara. Gero oso zaila da sinisimen arazo hori. Esate baterako apostasia eskatzen datorrena da Jangoikoa-gan sinisten ez duena? Ez naiz atrebitzen hori esaten. Halere elizatik egiten diren ezkontzak asko dira eta gu saiitzen gara pentsa arazten.



"Elizatik ezkontzen direnei pentsa arazten saiitzen da Eleiza".

►► Epaitegian ezkontzea

Epaitegian ezkontzen direnak gehitu egin dira azken urteetan eta aurrean bertan 8 bikote ezkondu

dira. Joan zen urtean 24 bikote ezkondu ziren. Epaitegiko ezkontza desberdina izan ohi da, bikoteen egoeraren arabera. Lehen aldiz ezkon-

tzaren direnek paper mordoxka behar dute. Jaio-tze agiria, NANaren fotokopia, Erresidentzia zertifikatua edo Enpadronamentukoa, Bizitza eta

Egoera agiria eta azkenik instantzia bat. 18 urtez beherako kasuan, 16 urte baino gehiago badute, euren kabuz bizitzeko gai direla adierazi behar-



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14



Merzeria - Lenzeria

Irala, 5 ☎ 76 25 69

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio, 3
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2
☎ 76 53 22

▶ **ANTZINAKO EZKONTZAK**

Pedro Lazpiur eta Bibiana Olañeta



Aberatsak zuriz ezkontzen omen ziren. Eurak beltzez.

Pedro Lazpiur eta Bibiana Olañeta Angiozarko Zabaleta baserrikoak orain dela 54 urte ezkondu ziren Arantzazun. Euren izan ondoren, argi geratu da orain eta lehengo ezkontzek ez dutela zerikusirik.

Zelakua izan zan zuen bodia?

- Gure denborakuen morukua. Arantzazun ezkondu giñan (Bibiana) San Blas egunian. Honen ania izan zan padrinua eta nere ahiztia madrinia. Gero baxkaixa euki giñuan, zerien, Oñatin. Gero gu fan giñan biajera Donostiara. Estreineko aldiz orduantxe jua nintzan Donostiara.

- Banketia eta zelakua izaten zan?

- Banketia? Gu biajetik etorri eta hurrengo domeka baten tiuei emon jakuen etxian bazkai bat. Gure bodia horretxekin akabau zan.

- Eta erregaluak eta jasotzen ziñuen?

- Pañuelon bat edo... Oingo kontuik ez.

- Izaten zan trukian emoteko arriorik edo?

- Izaten zien leku batzutan. Horrek aberats etxetan izengo zien.

- Bi egunetako bodak be izaten zien, ezta?

- Baserrixan senitarte-kuak eta bertan geratzen zien bazkaltzera eta lo eittera. Hurrengo egunian be baxkaixa izaten zan. Filarmonikia, fanderua eta soina izaten zan.

- Ze trajekin ezkondu ziñaten?

- Nik (Bibiana) ama zana hil berri geunkan da soineko beltza eta abrigo beltza. Orduan beltzez ezkontzen giñan. Oingo moduan distinziñoik ez zeuan. Ez

zeuan orduan pelukerixara joan beharrik be. Aberatsak eta zuriz ezkontzen zien. Zapatak eta, berriak. Gizonak trajiakin baina korbatarik be ez.

- Bankete ostian ein ziñuen dantzaldirik?

- Ez. Bazkaldu, Mondraueko bat nik (Bibiana) ezautzen nebana be gurekin batera ezkondu zan eta harekin batera Donostiara jua ginan. Han Bar Etxeberrian izan giñan.

"Donostiara estraineko aldiz ezkondu giñanian jua giñan"

ko dute eta 16 urte baino gutxiago dutenek dispenza judiziala izan beharko dute. Dibortziatuak edo aurreko ezkontza anulatuta dutenek Ez-

kontza agiria aurkeztu beharko dute. Alargunek aurreko ezkontzaren zertifikatua eta hildako emazte edo senarraren hileta zertifikatua adiera-

zi beharko dute. Eta azkenik, atzerritarrei dago kienez, kontsulatuan izena emanda daudela ziurtatu beharko dute eta, halaber, Espainian bizi-

tzen bi urte baino gehiago badaramatzate, enpardonamendu zertifikatua aurkeztu beharko dute epaitegian ezkontzerako orduan. ■

TOKI-ONA
Bodegoia-Taberna
 Eguneroko janariak / Txixizotzak
 Kazolatxoak / Txabierroak
 Matxiategi, 1 ☎ 76 39 53

MUGICA
 Goxotegia

 Pastelak
 Errellenoak
 Tostoiak
 Tartak...
 Artekale, 3 ☎ 76 10 34

anezka
 Espaloia, 8 ☎ 76 59 25
OIHALAK
LENTZERIA

Ezkontza, zibila ala elizakoa?



Mari Carmen Jauregi

35 urte, langilea

Ni elizatik ezkondata nago. Zergatik? Ez dakit, lehenbizi ohitura bat zelako eta hobea zela pentsatzen nuelako. Juzgautik ezkontzea ere ondo iruditzen zait.



Iñigo Ena

25 urte, ikaslea

Berdin zait baina gaur egun ezkonduko banintz elizatik izango litzateke beharbada, ohituragatik batez ere.



Mari Lurdes Ayuso

43 urte, etxeoandrea

Elizatik, txikititaik hori erakutsi zidaten eta. Ohitura jarraitzearen... Sinismen aldetik bada, erdixka. Berriz ezkontzekotan bi aldiz pentsatuko nuke.



Jose Antonio Perez

21 urte, langilea


Uste dut elizatik ezkonduko nintzatekeela, batez ere gurasoak pozik uztearren. Bestela berdin zait bata edo bestea.



Elena Mondragon

35 urte, langilea

Berdina da neretako. Ni elizaz ezkondu nintzen, gurasoengatik batez ere baina bietara konpromisoa bera da.



Antonio Aguayo

67 urte, jubilatua

Elizatik, tradizioa mantentzearen batipat. Ni, hala ere, juzgautik eta elizatik ezkondu nintzen baina elizatik politagoa da.

LASTER IREKITZEKOA (urriaren 28an)

Obstetrizia eta Ginekologia Kontsulta Serrano Doktorea


- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA •
- ANTISORKUNTZA • MENOPAUSIA •
- BULAR PATOLOGIA • ZIRUGIA •

- HAURDUNALDIA • JAIO AURREKO
DIAGNOSTIKOA • ESTERILIZAZIO KIRURJIKOA
(GIZONAK / EMAKUMEAK) • ANTZUTASUNA •
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA •

**PREZIO BEREZIAK, 25 URTEZ BEHERAKO, ETXEKOANDRE ETA ZAHARRENTZAT
(LAGUN-ARO ASEGUURUAK, IGUALATORIO MEDIKU-KIRURJIKOA...)**

San Martin Medikuzentrua

Ramon Maria Lili, 2 (LASA Jatetxea zegoen atzekaldean) BERGARA. Tfnoak: 76 59 39 / 72. Faxa: 76 25 72



Gizarte harremanak

Aldi batetik hona gizarte harremanetarako sentsibilitate berri baten aurrean ote gaudeneko susmoa hartua dute gizarte-azter-tzaileek.

Zorionez, gizalegez eta gizabidez portatzeak eragin ditzakeen galderei erantzuteko ez da non galdeturik falta. hala, gai hauez arduratzen den edozein esku-liburuk, kasurako, ederki adieraziko dizu jefearekin berba egin nahi baduzu, telefonoak zeuk al zuren idazkariak jo behar dion. Eta adierazten duena hain zuzen ere zuk-zeuk-zerorrek jo behar diozula da. Eta era honetara beste mila auzi-mauzi eta duda. Badituz baina, estuasun politetan ibili berri diren lagunak ere; hara.

Lehentxoko igande goiz batean Joxe Susaondo han joan zen perretxikotara beste askotako moduan. Pagadira iristearekin batera hor aurkitzen ditu -ia zapaldu ere bail- markesaren alabaren ezker eskuko guantea, koloretako bufanda eta hemen aipatuko ez dugun bestelakotxoren bat. Gaixo gure Joxel! Nola bueltatu genero guzti hori markesaren alabari? Kurioso-kurioso dena pakete batean batu eta etxera eroan, ala korrienteago, jaso beharrekoak plastikozko boltsa batera sartu eta udal gordailuan entregatu?

Orain aste batzuk gertatu da beste hau, berriz. Migeltxoren etxekonekoen "Legionario" txakurra autoren batek jo eta garbitu egin behar izan zuen. Etxekonekoak betidanik txakurzale eta txakurzulo izanak, lur jota xehe-xehe eginik geratu ziren, gaixoak.

Migeltxorentzat ostera, zorigaitzoko txakurra ile, zikin eta kirats iturri eta demaseko belarri-orri biren sherpa-porteadore besterik ez zen. Gainerakoan, seguru samarra da txakurrak betiko atsedena irabazi duela, hamaika alferreko zaunka eginda hil da eta.

Hona orain auzia: zer egin? Dolumina eman? Migeltxok, ez dauka baina, ez dolurik, eta ez minik, azkenean txakur bariko banean biziko dela sikiera ere, eta poza baizik.

Markos BALENTZIAGA



Eta gero zer?...

Ikasturte berri bat eta gero... zer?

Beste ikasturte bat ere hasi zaigu, Lehendakariak inauguratu zuen joan zen egunean.

Harro egoteko moduan gaude, munduan unibertsitate-ikasle gehien dituen estatuan bizi omen gara eta. Unibertsitari langabeetan ere buru-buruan gaude eta, ondorioz, baita txanpon alerik gabe geratu diren gurasoetan ere, izan ere tituluaren ondoren sektorean zabalduen dagoen lanbidea etortzen baita: "Kurtsillista"... Urteak joan eta urteak etorri, kurtsilloa kurtsilloaren gainean. Eta guzti hori, zertarako? Nik neuk ere ezin dut ukatu badudala "titulitis" gaitz hori eta zortea izan dudala esaten badidate ere, ez nago hain ziur hori hala denik. Azter dezagun lizentziatuen gaia:

- Diru aldetik, tituluak, kostu handia du eta eskatzen duen ahalegin akademikoa ere nabarmena da.

- Zerbaitekin osatu beharra izaten da beti: masterrak, hizkuntzak...

- Ikasitako gaiaren inguruan lan egiteko aukera gutxi izaten dute.

- Unibertsitarien artean langabezia ikaragarria da.

- Ez dute beste profesional batzuk baino gehiago irabazten eta prestigio sozialarena ere lehenagoko kontua da.

- Jakin badakit beste arlo batzutan ere egoera ez dela askoz hobea baina behintzat, kontsolagarri modura, pentsa dezakete berrek ez dituztela gau pila bat esna pasa azterketak prestatzen eta ez dituztela hainbat uda ezer gutxi esaten duten apunte zozoz inguratuturik igaro.

Eta, ni horretaz baliatu banaiz ere, benetan pentsatzen dut gainontzeko herritarrentzat ez dela oso justoa munduko unibertsitaterik jendetsuena, eta ondorioz langabetu gehien sortzen dituen, mantendu behar izatea.

Gutxi balio eta garesti ordaindu behar izaten delako.

Marta MORAL

TXISTU MOTOR

**KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA**




Volkswagen taldea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa.
☎ 76 09 31 BERGARA

IÑAKI egur estaldurak

**OHOL ZORUEN LEUNTZEA
LIXATZE ETA BARNIZATZEA
SITSAREN AURKAKO TRATAMENDUA
PARKETA ETA TARIMA JARTZEA**



Mekolalde, BERGARA
☎ 76 45 05 / 16 00 61 (gauetz)

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R. S. I. 209374 - SS

BERGARA



A ze pieza!!

A ze nolako sustoa hartu zuen **Iñigo Bolunburu** Txuringoko kamarero plaentziarrak! Mendian perretxikutan ari zela, Osintxun, **Kaparra** inguruan (zehatz mehatz zein tokitan aurkitu zuen aitatu ez zuen arren...) 1,600 Kg.ko onddo bat topatu zuen. Argazkian ikus daitekeenez ez zen bakarra izan baina bai ikusgarriena. Aurkikuntza aipagarria, duarik ez. Behar den bezala ospatzeko lagunekin batera afari bat egin zuen Iñigok Osintxuko soziedadean eta tartean *museoko* pieza hori ere jan zuten. On egin!

Zientziaren misterioak

Arraultza bitxi batekin topo egin zuten **Eugenio Igarza** eta **Antonia Agiriano** San Juango *Aizkar* baserriko senar-emazteek. Oilo bat hiltzerakoan barruan argazkian ikus dezakezuen arraultz beltz hori aurkitu zuten eta oraindik, nahiz eta albaitari bat ere arraultza aztertzen izan den, ez dakite horren zergatia. Kontua da arraultzak arraultza baino beste edozer gauza ematen duela eta ez, ez du ematen horrekin tortila on bat egin daitekeenik. Argitu beharreko misterioa!!



Eugenio Igarzak bere baserriko oilo batek zuen arraultza erakusten digu.

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
 Irizar, 3 lbargarai, 8
 ☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

BOLINTXO
Kirola egiteko behar den guztia
 lbargarai, 10
 ☎ 76 38 32

LAZKANO
Oinetakoak
 Barrenkale, 15
 ☎ 76 25 03



Irrati bidezko XAKE PARTIDA

Bergarako Xake Taldeak eta Surra Irratizaleak elkarteak Arrasateko San Andres Xake Taldearen eta Akra Irrati Taldearen kontrako irrati bidezko xake partidaren 4. edizioa jokatu zuten. Frontoira hurbildu zen jendeak partida jarraitzeko aukera izan zuen eta, azkenean, 6 ordu t'erdiko lehiaren ondoren bergararrak nagusitu ziren. Xake Taldeak eta Surra Irratizaleak elkarteak elkarrekin

ondo baino hobeto konpontzen direla azaldu zuten berriz ere. Uhin birtartez, Sobiet Batasuna ohiko errepubliketako maisu haundien kontra jokatzera iritsiko ote dira? Nork daki!!

Hori ere allegatuko da...



Ikusmina sortu zuen, Martin eta Andresek arrasatearren aurka jokaturako xake partidak.

Zertan dihardute ba?



Iñaki Zeziaga

IVEFen lizentziatutako 23 urteko arrasatearra izango da Udal Kirol Zerbitzuko elbarrituentzako monitorea datozen 6 hilabetetan. Zeziagak igeriketa, iharduera fisiko egokitua, aerobika eta beste hainbat kiroletako klaseak emango ditu (aurreko astean hasi ziren klaseak) eta Bergarako ikastetxeetako 50 bat elbarrituk parte hartuko dutela espero da. INEMaren laguntzaz, plangintza hau monitorea formatzeko ere jarri da martxan. Era berean, Iñaki Zeziagak elbarrituak Eskola Kirolean integrazteko proiektu bat egin beharko du.

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75



AGIRREBEÑA

oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

Mari Paz Alustiza


Tavesako langilea, Mari Paz Alustiza bergararra 12 urte zituela hasi zen margotzen. Azken 23 urtetan berak ikasitakoa erakusten saiatu da denbora horretan bere estudiotik pasa diren gazte eta nagusi askori.

- Pintorea, jaio ala egin?
- Egin.
- Nork erakutsi zizun margotzen?
- Simon Arrieta, Moises Eguren eta Bilboko maisu batek.
- Zer behar da ongi margotzeko?
- Gogoia.
- Kolore biziak ala motelak?
- Biziak.
- Paisaiak ala erretratuak?
- Paisaiak.
- Margotzeko sasoirik onena?
- Udazkena.
- Mundua ze kolorez ikusten duzu?
- Nahiko grisa.
- Kolorerik alaiena?
- Gorria.
- Margotzea ala erakustea zailago?



"Jaio baino, pintore denborarekin egiten da. Paisaiak gustatzen zaizkit batipat eta margotzeko sasoirik onena udazkena da. Mundua ze kolorez? Nahiko gris ikusten dut. Ikusi nuen bai Jesulinen korrida"

- Erakustea.
- Ikasle gazteak ala nagusiak?
- Gazteak. Baina pazientzia behar...
- Margolari bat.
- Modigliani.
- Zenbat koadro dituzu etxean?
- Hamar bat.
- Milioiak edukita, zein koadro erosiko zenuke?
- Las Meninas, Velázquezena.
- Karikaturak egiten dituzu?
- Egin izan ditut, nahiz ete nere espezialidadea ez izan.
- Nori egingo zenioke erretratu bat?
- Nere amari.
- Zergatik Bergaran hain pintore emakumezko gutxi?
- Uste baino gehiago daude.
- Guggenheim bai ala ez?
- Bai.
- Pintaden alde ala kontra?
- Alde, adierazpen askatasun bezala, gauza politak egiteko.
- Bideoa ala argazki kamara?
- Argazkiak, zuri-beltzean.
- Hauteskundetako informazioa jarraitzen duzu?
- Bai.
- Jesulin de Ubriqueren korrida ikusi zenuen?
- Bai, Jesulin asko gustatzen zait, oso berezia da, mutil jatorra.



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta

☎ 76 11 50

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR

Ana Iraeta



Ana Iraetak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, orain dela bi aste egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Angiozarko San Migel Parrokia** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Ana Iraetari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da BERPIZKUNDE garaiko jauregi honen izena eta zein urtetan bihurtu zen Kultur Etxe?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa.: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

**CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA,
ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak**

- *Azterketa ginekologiko osoak*
- *Minbiziaren aurretiko diagnostikoa*
- *Haurdunaldiaren kontrola*
- *Txekeoak*
- *Bularretako gaitzen unitatea*
- *Mamografiak*
- *Antzutasuna*
- *Antisorkuntza*
- *Menopausiaren tratamendua*
- *Dietak*
- *Sudurra, eztarria, belarria*
- *Analisi klinikoak*

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN BARIK**



MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Eleizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00

An advertisement for 'ELECTRICIDAD ELKAR ELEKTRAGINTZA'. The background is a window with horizontal blinds. At the top, the word 'ELECTRICIDAD' is written. Below it, the word 'ELKAR' is written in a stylized, blocky font. To the right of 'ELKAR' is a logo consisting of a square with a stylized 'E' inside. Below 'ELKAR', the word 'ELEKTRAGINTZA' is written. In the center, there is a large telephone icon followed by the number '76 00 00'. At the bottom of the image, there is a collection of electrical components and tools on a table.



Lehen maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A m u l t z o a
1. Errotagain	5	3	2	1	0	24	11	
2. Mongatxurra	5	3	2	1	0	18	6	
3. Bar Canalejas	5	3	2	1	0	12	5	
4. Angiozar	5	3	2	1	0	8	6	
5. Madura	4	3	1	2	0	15	11	
6. OH Zerezos	2	3	1	0	2	13	10	
7. Etxagi	2	3	1	0	2	14	19	
8. Ogizun	2	3	1	0	2	9	14	
9. Uve Bikoitza	0	3	0	0	3	9	15	
10. Guadalest	0	3	0	0	3	6	25	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t z o a
1. Bildurbarek	6	3	3	0	0	10	5	
2. Kabia	4	3	2	0	1	24	5	
3. Ozaeta	4	3	2	0	1	11	4	
4. Arloteak	4	3	2	0	1	9	9	
5. Pagomendi	4	3	2	0	1	12	11	
6. Usoa	3	3	1	1	1	10	9	
7. Revienta	2	3	1	0	2	6	6	
8. Os jardineiros	2	3	1	0	2	6	13	
9. Ufala	1	3	0	1	2	9	12	
10. Arkupe	0	3	0	0	3	5	30	

Bigarren maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t z o a
1. Krai	6	3	3	0	0	11	1	
2. Kriterium	5	3	2	1	0	11	7	
3. Nahikari Hool.	4	3	2	0	1	6	3	
4. A Ze Flaxa	2	1	1	0	0	3	1	
5. Constr. Bergara	2	2	1	1	1	8	7	
6. Txipiron	1	1	0	1	0	-	-	
7. Kriston Potruak	1	3	0	1	2	1	5	
8. Nekrofilikos	1	3	0	1	2	6	12	
9. Paok San Juan	0	3	0	0	3	4	10	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t z o a
1. Etxenagusia	6	3	3	0	0	29	5	
2. La Juve	4	2	2	0	0	10	1	
3. Shaktale	4	3	2	0	1	15	9	
4. Igandekoak	2	2	1	0	1	8	3	
5. Aldoka Maldoka	2	2	1	0	1	7	6	
6. Amozkibar	2	2	1	0	1	4	7	
7. EH Biterrak	2	2	1	0	1	3	6	
8. Labegarieta	0	3	0	0	3	4	20	
9. Los Txupetas	0	3	0	0	3	7	27	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t z o a
1. Soropotroak	6	3	3	0	0	17	4	
2. Pikapiedras	4	3	2	0	1	10	4	
3. Hartu Zamak	4	3	2	0	1	14	9	
4. Eri	4	3	2	0	1	12	9	
5. Kirolzaleak	2	2	1	0	1	1	3	
6. Ezinleike	2	3	1	0	2	10	17	
7. Ari Ari	0	1	1	0	1	2	4	
8. Pata Negra	0	1	0	0	1	3	6	
9. Patxaran Team.	0	3	0	0	3	5	17	

emaitzak

Errotagain-Etxagi	8-4
Mongatxurra-Madura ...	3-3
Angiozar-Uve Bikoitza .	2-1
Canalejas-Guadalest ...	5-0
Angiozar-Errotagain	3-3

Bildurbarek-Revienta ...	3-0
Ozaeta-Arkupe	7-1
Usoa-Ufala	3-3
Arloteak-Os jardin.	1-2
Pagomendi-Kabia	1-6

Krai-Kriston P.	1-0
Nahikari H.-A Ze Flaxa .	1-3
C. Bergara- Paok.	7-3
Kriterium-Nekrofilikos .	6-6
Nekrofilikos-Krai	0-4

EH Biterrak-Igand.	3-2
Shaktale-Labegar.	6-1
Amozkibar-Etxenag.	0-7
La Txupeta-Aldoka	1-7

Pikapiedras-Patx. T.	5-0
Ezinleike-Soropotroak .	0-9
Hartu Zamak-P. Negra .	6-3
Kirolzaleak-Eri	0-3
Eri-Pikapiedras	3-5
Patx. Team-Ezinleike ...	3-6
Soropotr.-H. Zamak	4-2

partiduak

LARUNBATA

Barruan
 9.00: Aldoka -Labegarieta
 (A Ze Flaxa)
 10.00: A Ze Flaxa-Krai
 (EH Biterrak)
 11.00: Etxenagusia-EH Biterrak
 (Krai)

Kanpoan

9.00: Kabia-Usoa
 (Bildurbarek OPEL-LAM)
 10.00: Arkupe-Bildurbarek
 (Kabia)

IGANDEA

Barruan
 9.00: Txipiron-Nahikari Hooligans
 (Kriston Potruak)
 10.00: Kriston P-Kriterium
 (Nekrofilikos)
 11.00: Nekrofilikos-Contrs. Bergara
 (Amozkibar)
 12.00: Shaktale-Amozkibar
 (Patxaran Team)
 13.00: Patxaran Team-Kirolzaleak
 (Shaktale)
 16.00: La Juve-La Txupeta
 (Soropotrak)
 17.00: Soropotroak-Pikapiedras
 (Ezinleike)
 18.00: Pata Negra-Ezinleike
 (Ari Ari)
 19.00: Ariz Ari-Hartu Zamak
 (Pata Negra)

Kanpoan

9.00: Etxagi-Bar Canalejas
 (Errotagain)
 10.00: Uve Bikoitza-Errotagain
 (Ogizun)
 11.00: Ogizun-Angiozar
 (Madura)
 12.00: Madura- OH Zerezos
 (Guadalest)
 13.00: Guadalest-Mongatxurra
 (OH Zerezos)
 16.00: Kayak Os Jard- Ozaeta
 (Arloteak)
 17.00: Ufala-Arloteak
 (Pagomendi)
 18.00: Revienta-Pagomendi
 (Ufala)

**KIROL
KARTELDEGIA**► **Futbola**

Bergara-Orioko
Lehen Errejonala.
Igandea, 11.15. Ipintza.
Bergara-Zumaiako
Emakumeak.
Larunbata, 16.30. Ipintza.

► **Eskubaloia**

Bergara-Aloña
Kadete neskek.
Larunbata, 16.15.
Bergara-Hernani
Jubenil neskek.
Larunbata, 17.30.
Bergara-Aloña
Jubenil mutilak, 19.00.
Guztiak Kiroldegian.

► **Saskibaloia**

Bergara-Arrasate
Kadete mutilak.
Larunbata, 12.15.
Kiroldegia.

► **Pelota**

Bergara-Azpeitia
Gazteak, banaka.
Zabaleta / Artetxe.
Bergara-Azkoitia
Gazteak, binaka.
Muru eta Gutierrez /
Ameztoi eta Larrañaga.
Ostirala, 22.00.
Udal pelotalekua.
• **Unanue III eta Oregi /
Telletxea eta Lasa III**
• **Unanue eta Errasti /
Eugi eta Galarza III.**
• **Badiola eta Andueza V /
Orbea eta Andueza VI.**
Larunbata, 16.30.
Udal pelotalekua.



Rodriguez eta Guruzeta kapitainek eta Julio Elorzak oroigarriak eman zizkieten Julian Bernali. Ondoan, Bernalen semeak. Iñigo Zaitegik, BKEn izenean ere trofeo bat eman zion Bernali.

4.000 lagun inguru Julian Bernalen alde Agorrosin toperaino. Milioi pezetatik gora jaso ziren

Bergara K.E.ko Zuzendaritzak beti amestu izan duen sarrera eman zen asteazkenean Agorrosinen, Realak eta Eibarrek Julian Bernalen alde jokatu zuten partiduan. 4.000 lagun inguru bildu ziren bertan eta Bernali bateriako silla bat erosi ahal izateko 1.200.000 pezeta inguru batu ziren. Musika Eskola-ko txaranga giroa pizten zuelarik, partidu atarian Julian Bernalek hainbat oroigarri eta bere herritarren txalo zaparrada beroa jaso zuen. Ondoren, Realak 3 eta 1 irabazi zion Eibarri; eibartarrak aurreratu ziren (Arriola) baina Realak buelta eman zion partidua-

ri 2. zatian (Iturrino, Etxeberria eta Idiakez). Atsedendian Julio Elorzak 704 toke lortu zituen baloia lu-

rra ikutu barik. Partidu ostean partaide guztiak Lasai-Tokin izandako luntxean bildu ziren.



Realeko eta Eibarreko jokalariek Julian Bernalekin.

BEHEKO TABERNA

**Menestra eta konejora
dira gure berezitasunak**
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

OILAGORRA TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

iletxo

ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS

Flemig Doktoorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

Bergarako rugbylariak

Bergaran talderik ez dagoela eta, kanpoan ari dira

Bergaran talderik izan ez arren, bada gure herrian rugby zaletasuna. Horren lekuko ditugu Iñigo Ansuategi (27 urte), Izaro Aperribai (21 urte), Asier Etxaniz (24 urte) eta Iñigo Olasolo (24 urte).



Olasolo, Ansuategi, Aperribai eta Etxaniz.

Lehen hirurak Arrasaten jokatzen ari dira Claudio Merchan eta Patxi Gorosabelen agindutara Euskal Ligako lehen mailan eta Olasolo, berriz, Donostiako UPV taldean, 2. mailan, Jesus Maria Valoria entrena-tzailea delarik. Olasolo bera dugu beterranoena, 7 urte bait daramatza rugby-ban jokatzen; Ansuategi aurten bere bosgarren denboraldia bete-ko du, Etxanizek lau-garrena eta Aperribaik bere bigarrena jokatuko du urriaren 23tik aurrera. Etxaniz medio-mele postuan aritzen da eta beste hirurak aurrelari.

Laurek azaltzen digu-tenez, "betidanik gustatu izan zaigu rugbya, tele-bistan "Bost Nazioen Torneoa" ikusten genuenetik". Olasolok Unibersitatean jokatzen haste-ko aukera izan zuen eta gainontzekoak Arrasaten, lagunek animatuta. "Rug-

byan jende eta diru falta dago ez baita ahaztu behar kirol amateur dela eta, jokatze-ko fitxa ordaindu beharra dauka-gu. Dena den, gero eta talde gehiago dira inguru-ko herrietan eta afizioa haundituz doa. Ez da normala Bergaran talde-rik ez izatea. Nesketan ere badago 6 talderen arteko euskal liga bat. Jende askori gustatzen zaio rugbya baina arau-dia ondo ezagutzea oso nekeza da; guk oraindik ez dugu araudia goitik behera ezagutzen".

Rugbyak beti izan du kirol gogorregia izatearen fama; "kanpotik gogorra dela ematen du baina

barruan zaudela ez da horrenbesterako. Kolpeak hartzen dituzu bai, baina segituan errekupe-ratzen zara. Gainera, partidua amaitutakoan dena ahaztu eta elka-rrekin trago batzuk har-tzera joaten gara, "El tercer tiempo" deitzen zaio horri, oso giro ona izaten da".

Esan bezala, datorren astetik liga berri bati hasiera emango diote "ondo pasatzea besterik ez du-gu nabi, gure asmoa ez da talde haundi batera iristea". Horrez gain, Bergaran bertan torneo bat antolatzea gustatuko litzaeke, "jende gehiagok rugbya ezagutu dezan".

GIMNASIA ERRITMIKOA

Ariznoa Gimnasia Errit-miko taldeak antola-tutako klaseak ondoko ordutegian izango dira: 5-6 urteko neska-astelehen (6.15-7.15), as-teazken (5.15-6.15) eta ostiraletan (5.15-6.15) Mariaren Lagundian; 7-8 urtekoak, asteazkene-tan Kiroldegian (5.15-7) eta ostiraletan Mariaren Lagundian (6-7.30) eta, azkenik, 9-10 urtekoak astelehenetan Kiroldegian (5.30-7) eta oste-gunetan Mariaren La-gundian (6-7.30). Hila-beteroko kuota 1.500 pta.koa da. Asteartee-tan, 5.15etik 6.15etara balleta izango da Mari-aren Lagundian (1.000 pta. hilero).

IKASTAROAK

Euskara eta Kirola pro-gramaren barne, Orien-tazioa mendian (urria-ren 22, 23, 29 eta 30e-an Oñatin), Rugby ego-kitua (irakasle eta kirol monitorea urriaren 25ean Bergaran) eta Kirol bendajeak (azaro-ak 12 Eibarren) ikasta-roak antolatu dira. Argi-bideak 76 59 57 telefo-noan.

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta


AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitate-dun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7 behea.
☎ 76 50 39

AGOITZ
Tapizdenda
San Lorenzo, 25 ☎ 76 11 58
BERGARA



Gaztetxoentzako txirrindulari lasterketa

Bildur Gutxi lagun taldeak garai batean herriko eta alboerrietako ume eta gaztetxoentzat antolatu ohi zituen lasterketetako bateko saridunak dituzue hemen agertzen direnak. Gero famoso bihurtu denik ere badago bertan, ikusten duzuenez.

Lasterketa edadearen arabera bi mailatan banatu zen.

Goian nagusienetan saridun izandakoak dituzue: Peli Mujika (antzuolarra), Iñigo Igartua eta Xabier Legorburu (antzuolarra).

Makurtuta, berriz, gaztetxoenetan saritutakoak: Mikel Leturia, Cristian Aranzabal eta Aitor Ibarra.

Argazkian ikusten diren antolatzaile-taldeko ordezkariak, berriz, Jabier Arana, Jesus Aranzabal eta Gurutz Arrieta dituzue.

Estepan Plazaola

CAMACHO

**Drogeria
Usaindegia**

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Zabalotegi-ko Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19.

Pisua salgai Artekalen. ☎ 76 12 81.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 50 05 (Josune).

Etxea alokatzen da Martokuan. ☎ 76 14 60.

Pisua alokatzen da Matxia-egin. ☎ 76 46 15.

Pisu amueblatua salgai Bolun. ☎ 76 10 75 (gauze).

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua alokatzen Zubiaurren. ☎ 76 13 85.

Pisua salgai Martokua 18an. ☎ 76 00 51.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 10 55.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13 (goizez).

Pisua alokatzen da Irizar ibilbidean. ☎ 76 21 28.

Garajea saltzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

DENETARIK

Ford Fiesta Ghia SS-T salgai. ☎ 76 15 40/16 18.

Egunero Gasteizera joateko pertsona bat behar dut kotxea osatzeko. ☎ 76 15 63 (Amaia).

Urrezko belarritako bat (aroduna) galdu dut. ☎ 76 25 52.

Bi neska behar dira Donostian (Antiguon) **pisua osatzeko**. ☎ 76 21 09.

ESP Horizon baxoa eta Marshall JCM 800 anplia salgai. ☎ 76 56 61 (Ibon).

Zibro estufa salgai (egoera onean). ☎ 76 12 86.

Triall Ossa (350 cc.) motoa salgai. ☎ 76 37 42.

Opel Corsa 1200 kotxea (SS-AJ) salgai. ☎ 76 29 91.

Ordenadore merke bat erosiko nuke. ☎ 76 08 19.

Armairu bat (1.80 m.koa gehienez) erosiko nuke. ☎ 76 59 15 (Jose Luis).

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

BBB 3.eko matematikako klaseak hartuko nituzke etxean. ☎ 76 38 71 (Larraitz).

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Haurrak zaindu edo etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 10.

Perfumeak saltzeko lana eskeintzen da. ☎ 75 10 07 (Raquel).

Fisika eta matematika klaseak. ☎ 76 24 57.

Lokalak garbituko nituzke. ☎ 76 51 76 (Leire).

Matematika klase partikularrak ematen dira. Zubieta 2, 1.goa eskuma (Jesus).

Haurrak zaindu eta etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 45 10 (Jaione).

Aleman klaseak. Tituloduna. ☎ 76 12 77 (Maite).

Matematika finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

Zaharrak zaindu, etxeak garbitu, dendaren batean lagundu edo jostunen batekin lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.

Hildakoak

Agustin Pérez Rodríguez
Urriak 8, 89 urte
Julia Mujika
Urriak 8, 89 urte

Jaiotakoak

Maria Cordero Carazo
urriak 4
Unai Gabilondo Zenitagoia
urriak 5
Ion Urkia Barrenetxea-Arando
urriak 6
Cristina Etxeberria Ruiz
urriak 6

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ZUBIAURRE
aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.
HORMA ARMAIRUAK
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behe
☎ 76 23 48



A R R A S A T E



UNITED COLORS
OF BENETTON.

